Azken urte hauetan, biztanleria zahartzen doa eta biztanleen artean gero eta gehiago dira menpekotasun egoeran daudenak.

Orain arte, zainketa eta arreta lana familiak egiten zuen. Gaur egun, berriz, aldaketa asko gertatu dira (gizartean zein lan arloan) eta, ondorioz, familiak ezin die ardura horiei aurre egin.

Etxez etxeko zerbitzu honen bitartez adinekoen eta/edo menpekotasun egoeran dauden beharrei erantzuna eman nahi zaie, prebentzio edo laguntza jardueren bitartez.

*En los últimos años estamos asistiendo a un creciente envejecimiento de la población y en consecuencia de las situaciones de dependencia.*

*El papel de la familia, que hasta ahora cumplía casi totalmente con las funciones de cuidados y atención, está viéndose reducido debido a los constantes cambios sociales y laborales.*

*A través del programa de atención a domicilio se pretende dar respuesta a las necesidades de las personas mayores y/o dependientes, mediante actuaciones preventivas o asistenciales, apoyo en el domicilio, ayudas técnicas y gestión de otro tipo de recursos.*



**BAZTAN, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO UDALAK**

**AYUNTAMIENTOS DE BAZTAN, URDAX Y ZUGARRAMURDI**

ELIZONDOKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK

SERVICIO SOCIAL DE BASE DE ELIZONDO

FORU PLAZA Z/G ELIZONDO 31700

PLAZA DE LOS FUEROS S/N

TELEFONOA/TELEFONO: 948580006
Fax: 948452269
EMAILA/ EMAIL: eurtasun@baztangoudala.eu
www.baztan.es

ELIZONDOKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK

SERVICIO SOCIAL DE BASE DE ELIZONDO



# ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA SERVICIO DE ATENCIÓN A DOMICILIO

Etxez etxeko laguntza zerbitzua Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdiko udalek eskaintzen duten zerbitzua da eta beren kabuz bizitzeko zailtasunak dituzten pertsonei zuzenduta dago. Zerbitzuak banakako zenbait zerbitzu eskaintzen ditu (aldi baterako edota betiko) eta pertsonak bere ingurunean ahal den ondoen txertatzea, bere autonomia pertsonala handitzea eta bere bizi-kalitatea hobetzea lortzen saiatzen da.

Ohiko etxebizitzan hainbat prestazio eta hainbat jarduketa egiten dira, hala nola: etxeko laguntza (etxearen mantenimendua, jateko laguntza, etab.), laguntza pertsonala (norberaren garbiketarako laguntza, janzteko laguntza, paseora laguntzea, etab.), laguntza psikosoziala, ohitura egokiak hartzeko heziketa, familiari laguntza, orientazio teknikoa, etab.

## HELBURUAK

Pertsona bere etxean ahal den denbora gehien bizitzea mantentzea, internatzea beharrezkoa den egoeretan soilik eginez, horrek eragiten duen deserrotzeagatik.

Autonomia maila egokia ahalbidetzen duten trebetasun, abilezia eta gaitasun pertsonalak eta familiarrak optimizatzea, ohitura osasuntsuak bultzatuz eta segurtasuna eta autoestimua handituz.

Autonomia pertsonalean edota gizarte mailako autonomian eragina duten krisi pertsonal eta/edo familiarrei arreta ematea.

## NORTZUK GARA?

*-Gizarte langilea:*
Eskaera jasotzen duena da, kasua ikertu eta baloratu egiten duena, interbentzioaren nondik-norakoak zehaztu, eta proiektua gainbegiratu, jarraitu eta ebaluatu egiten duena.

*-Lau familia langile:*
Ondoko lanak egiten dituzte: pertsona eta etxea zaintzeko zuzeneko lanak; gaitasunak eta ohiturak garatu eta sortarazi pertsonengan; kasuaren eboluzioaren jarraipena egin eta gizarte langileari horren gaineko informazioa eman.

*El SAD es un servicio de los Ayuntamientos de Baztan, Urdax y Zugarramurdi que se dirige al conjunto de la población que cuente con limitaciones en las actividades de la vida diaria, y que ofrece la prestación de una serie de servicios de carácter individual (de manera temporal o permanente), procurando la mejor integración de la persona en su entorno, el incremento de su autonomía funcional y la mejora de su calidad de vida.*

*Se trata de un conjunto de prestaciones y actuaciones en el domicilio habitual, tales como: apoyo doméstico (mantenimiento domicilio, apoyo en la alimentación, etc.), atención personal (apoyo en el aseo, vestido, acompañamiento a paseo, etc.), apoyo psicosocial, educación en la adquisición de hábitos, apoyo a la familia, orientación técnica, etc.*

## *OBJETIVOS*

*Favorecer la permanencia de las personas en su entorno habitual el mayor tiempo posible y con el mayor grado de calidad de vida, evitando internamientos innecesarios y el consiguiente desarraigo del entorno.*

*Lograr la optimización de las destrezas, capacidades y habilidades personales y familiares que permitan el máximo grado de autonomía potenciando hábitos de vida saludables, aumentando la seguridad y autoestima personal.*

*Atender situaciones coyunturales de crisis personal y/o familiar que afecten a la autonomía personal o social.*

## *¿QUIENES SOMOS?*

*-Una trabajadora social:*
*Es la que recibe la demanda, siendo la responsable de la realización del estudio y valoración del caso, el diseño del programa de intervención adecuado, además de la supervisión, seguimiento y evaluación del proyecto.*

*-Cuatro trabajadoras familiares:*
*Son las que realizan las tareas de carácter personal, doméstico y de apoyo a la creación y mantenimiento de hábitos y capacidades, así como la valoración e información periódica a la trabajadora social de la evolución de la situación con su intervención continuada.*